

**Eva Balmisa**

[evabalmisa.wordpress.com](http://evabalmisa.wordpress.com)

### ***Síndrome de la impostora (Iruzurtiaren sindromea)***

*Síndrome de la impostora* piezak emakumeok jasaten dugun sindrome bat du hizpide: arlo profesionalean lortzen duguna zorionez -eta ez gure ahaleginagatik- lortzen dugula sentitzen dugunean sortzen dena. Sentitzen dugu "iruzurtiak" garela jakingo dutela eta ez dugula merezi lortu duguna.

Kosta egiten zait nire meritua eta esperientziak aipatzea, eta, nahiz eta jakin begizta hori guztia iruzurtiaren sindromea dela, ezin dut ihes egin. Ihes egin nahi dut eta barkamena eskatu, nirea ez den leku bat betetzen ausartzeagatik.

Síndrome hori arte-eremura eramanez, betetzen eta lantzen dugun espaziotik musak bezala ikusi gaituzte beti, ikuspegi maskulintotik eraiki eta onartutako objektu gisa. Eta begirada horretatik eraikitzeak sortzen du garena baino gutxiago garela sentitzea. Ba al dago aukerarik ordezkaturata eta errespetaturata sentitzeko moduko espazioak sortzeko? Gizonezkoen begiradatik eta boteretik eraiki den espazio batean egon nahi dut?

Piezan dikotomia hori azaltzen dut, etengabe espazio adierazgarriaren forma desberdinetatik ihes eginez, espazio horretan musa bat bezala egotea baztertuz, eta gizonek eraiki eta legitimatutako espazio batean egotea baztertuz.

